

**HIZKUNTZANIZTASUNA  
ETA HIZKUNTZARTEA  
Hizkuntzalaritza,  
Glotodidaktika  
eta Traduktologiaren  
inguruko zenbait gogoeta**

Xabier Mendiguren Bereziartu

---

---

RIEV. Revista Internacional de los Estudios Vascos.  
Año 42. Tomo XXXIX. N.º 1 (1994), p. 53-63  
ISSN 0212-7016  
Donostia: Eusko Ikaskuntza

Palabras clave: Interlingüística, Glotodidáctica, Traductología.

Key words: Interlingual, Glottodidactic, Science of translating.

Este artículo pretende poner de relieve la importancia del plurilingüismo y del pluriculturalismo en una sociedad como la vasca y la necesidad de realizar una profunda reflexión en orden a coordinar y profundizar interdisciplinariamente los problemas en campos afines como son la filología, la lingüística, la glotodidáctica, la estilística comparada, la crítica literaria, la traductología, etc., con un enfoque fundamentalmente didáctico.

Lan honek eleaniztasunak eta kulturantzitasunak euskal gizartearen baitan duen garrantzia nabarmendu nahi du, bai eta arazoengatik disziplinarreko gogaketa sakona hainbat alorretan egiteko premia adierazi, hala nola filologia, hizkuntzalaritza, glotodidaktika, estilistika konparatua, literatur kritika, traduktologia, etab., funtsean ikuspegi didaktikoa erabiliz.

This article aims at emphasizing the importance of multilingualism and multiculturalism in a society such as that of the Basque society and the need for deep reflection with regard to the interdisciplinary coordination and in-depth study of problems in similar fields such as philology, linguistics, glottodidactics, compared stylistics, literary criticism, the science of translating, etc., with a fundamentally didactic focus.

Artikulu honetan eskaini nahi ditudan gogoetak zenbait urtez hizkuntza desberdinekin irakasle eta itzultzaile gisa, lanean aritu izan eta berorien inguruko hausnarketa gutxi-asko sistematikoak egin izan dituzten bibliografiak esku artean erabiltzetik sortuak dira.

Alde batetik, Euskal Herrian bizi denarentzat begibistako errealitatea da azken urte hauetan aurrez aurre daukaguna: eskolan euskara, gaztelania (frantsesa) eta ingelesa ikastera beharturik aurkitzen dira haur euskaldunak; eta zenbait kasutan laugarren hizkuntza bat ere bai, frantsesa zein alemana izan daitekeena; gainera, hizkuntza klasikoetara hurbiltzen direnek latina eta grekoaren ezaguera on samar batez ere jabetu beharra izaten dute.

Bestalde, gurea bezalako herri txiki batean eta dugun ekonomia- motarengatik bereziki esportatzera eta kanpoko merkatuekiko gero eta harreman handiagoa izatera beharturik aurkitzen den batean, biztanleriaren kopuru handi samar bat bi hizkuntza ez ezik, hirugarren bat ere, (ingelesa, frantsesa edo alemana) bere eguneroko lanean gero eta gehiago erabili beharrean gertatuko da, nola irakurri eta idazteko hala mintzatzeko, maila batean zein bestean.

Alde batetik, euskarak luzaroan pairatu duen eta oraindik gainditu ez duen egoera sozio-linguistikoko zailarengatik, errealitateak ezartzen digun hizkuntzaniztasun horren aurrean elebarkartasun edo monolinguismozko egoerak idealizatzen eramaten du zenbait gure artean, hizkuntzartekotasuna arbuia eta gorrotatzera, itzulpenaren gorakadaren aurrean mesfidantza sentitzera eta, kasurik hoberenean ere, euskaldunok ezinbestekoa dugun gogoeta glotodiktiko, traduktologiko eta linguistikoko sakon eta serioa atzeraraztera.

Oraindik behar bezala planteatu ere egin ez dugun eta etorkizun hurbilean instantzia akademiko, politiko-administratibo eta sozio-kulturalak bilduz ireki beharko den eztabaida horretarako hasikin bezala eskaini nahi nituzke ondorengo hausnarketa eta iradokizun hauek. Eztabaida hori, jakina da, testuinguru edo marko zabalago batean kokatu beharko da eta azkenean, etorkizuneko Euskal Herrian zer gizarte-mota eta hori lortzeko zer irakaskuntza mota nahi dugun galderari erantzun beharko diogu, ondoren helburuei dagozkien bitartekoak antolatatu ahal izateko.

## Hizkuntzaniztasunarekiko ezbaiak

Gero eta txikiago bihurtzen ari den Lur deritzan planeta honetan distantziak laburtzen ari direneko abiadura zorabiagarria dela medio, hizkuntzaniztasuna edo poliglotesmoa gero eta nabariagoa zaio batezbesteko hiritarrari lan, ikasketa, komunikabide eta turismoaren alorrean; eta hasteko, beste hainbat errealitate bezala "gertakari" soila den horren aurrean aldeko, kontrako edota axolakabe samarrak har daitezke. Gu ez gara salbuespen eta euskal gizartearen ere balioespen desberdinak egiten dira hizkuntza bat baino gehiago ikasi, ezagutu eta erabil-

tzeari dagokionez; tarteka geure fobiak eta filiak jendaurrean azaldu ere egiten ditugu, nahiz eta berorien azpian dauden arrazoi edo jarrerak gehiegi aztertu eta argitara eman gabe egin.

Adibidez, badira gure artean euskal gizarte elebakar bat lortzea euskararen superbizimen eta iraupenerako ezinbestekotzat jotzen dutenak eta datorren Europan eta munduan hori zenbateraino posible den, edo gure esku egon litekeen gehiegi galdetu gabe, nahiago dute beste hizkuntzen presentziari galgak ezartzea; beste era batera esateko, poliglotismoa ez dute nahigarriztat, eta agian ezta positibotzat ere jotzen beren helburu jakin hori lortzearen ikuspuntu soiletik. Horrelakoei, lehenengo eta behin gogorarazi behar zaie hizkuntza ezagutzeak ez duela esan nahi ama-hizkuntza bezain ongi eta jariakor derrigor ikasi behar denik, eta gutxiago haren lekua bete behar duenik. Schopenhauerrek duela ia bi mende baieztatzen zuen hura ez lukete izenpetuko aipatutakoek: “Poliglotismoa, dituen berehalako abantailaz gain, gogame-na lantzeko bitartekoa dela gure pertzepzioak zuzenduz eta hobetuz sortzen diren kontzeptuen aniztasun eta errefinamenduarengatik. Aldi berean, poliglotismoak gehitu egiten du pentsamenduaren malgutasuna, zeren hizkuntza asko ikastean, kontzeptua gero eta gehiago banatzen baita hitzetik”<sup>1</sup>.

Hizkuntzen aurrean bezalaxe beroriei estuki loturik dauden kultura eta idiosinkrasia desberdinei buruz ere jarrera diferentek aurki ditzakegu, zeren arrotz zaiguna, bestelakoa, “diferentea” anbiguo gertatzen baitzaigu: baldintza batzuetan aberasgarri eta interesgarri dena, beste baldintza batzuetan mehatxuzko eta gorrotagarri gerta legikuge, Europako azken mugimendu eta gatazka batzuetan ikusten ari garenez. Sakratuaren aurrean S. Augustini bezala, “*inhorresco et inardesco*” itxuraz esamolde kontraesankorra etor liteke ezpainetara arrotza denaren aurrean. Baina kanpotik datorkigun errealtate hori positibotzat edo negatibotzat hartzea, neurri handi batean, subjektuak izan duen hezkuntzaren, landu duen irekitasunaren eta metatuz joan den atzeritarrekiko esperientzia atsegin, aberasgarrien baitan dago.

Hizkuntzari dagokionean bederen atzerria beti “otso-herria” dela uste dutenei M. Wandruszkaren hitzak gogoraraztea komeni da: “Gure hizkuntzak ez dira monosistemak; horietako bakoitza berez hizkuntz konglomeratu bat da, horietako bakoitza polisistema bat da. Badago beste herrien hizkuntzak, beste kultura batzuetakoak ikasterik, eskolan, atzerrian, herri berri batean. Gizadiaren parte handi batek, perfekzioz ez bada ere, bi hizkuntza edo gehiago hitz egiten ditu. Beraz, gizabanakoen, familien populazio-talde osoen elebitasuna eta hizkuntzaniztasuna gure garai honetako arazo soziolinguistiko handietakoak dira”<sup>2</sup> Eta ondoren dio hizkuntza misto guztiak, hizkuntza hibridoak elebitasunean edo hizkuntzaniztasunean oinarritzen direla eta seguraski mundu osoan ez dagoela hizkuntza “garbi” bakar bat ere.

Historikoki euskarak beste hizkuntzetatik eta bereziki latin eta erromantzeetatik osagaiak bereganatzeko izan duen gaitasuna nabarmena da; eta okerra egiteko beldur handirik gabe esan liteke gure garaiotara arte iraun badu, seguraski ingurutiko hizkuntz eraginetara moldatzeko erakutsi duen malgutasunari esker gertatu dela hori. Ekaitzaren aurrean ez duela alegiako haritzarena egin, kainaberarena baizik, edota italiarrek diotenez “*cavalcare la tigre*” egiten primeran jakin izan duela, Europan gelditu den inbasio ariarraren aurretiko hizkuntza ia bakarra izateko.

1. STÖRIG, H. J. (Hers.) *Das Problem des Übersetzens*, 1973, Darmsdt, 105 or. Pasarte hau § 309 gisa agertzen da *Parerga und Paralipomena* obrako “Ueber Sprache und Worte” XXV kapituluan. *Arthur Schopenhauer's sämtliche Werke*, herausgegeben von Julius Frauenstädt, 2. Aufl., Bd. 6, Leipzig (Brockhaus) 1891, 601-607 orr.  
2. LAVALT, E. *Fonctions de la Traduction in Didactique des Langues*, Paris, 1985.

## Glotodidaktika eta itzulpengintza

1986an *SENEZ Itzulpen eta Terminologiako Aldizkariak* (2-3 zkia) itzulpena eta hizkuntz irakaskuntzari eskainiriko ale monografiko bat argitaratu zuen. Bertan Elisabeth Lavault-ek<sup>3</sup> itzulpen pedagogikoaz buruturiko inkesta baten ondorioak aipatu eta iruzkindu ondoren hitz hauek erabili nituen artikulua amaitzeko: "Nahiz eta onartu itzulpengintza itzultzaile profesionalen egitekoa dela, gero eta nabariago ikusten da teknikari, ikerketari, irakasle eta abarrek duten itzuli beharra, hizkuntza arrotzen irakasle eta zaleez gainera. Euskal Herrian ez dago adibide gehiegi eman beharrik hau ulertzerko, zeren eta herri itzultzailea baikara funtsean. Si-netsirik gaude, *hic et nunc*, itzulpenaren pedagogia seriooki eskolan sartzeko orduak jo duela eta gainera zeregin izugarri bat daukala burutzeko gure irakasle eta ikasleen artean".

Lerro horiek idatzi nituenetik zazpi urte luze igaro dira, baina gure Hezkuntzako glotodidaktikaren inguruan egin beharreko gogoeta eta birplanteaketa larriaren orduak oraindik ez dio jotzeari utzi, zeren ez baita ezertxo ere egin ildo honetatik, nahiz eta azken urteotan euskalduntze- eta elebiduntzearen koantifikazioak eta A, B, D ereduaren inguruan eztabaidak eta kritikak ugaltu diren. Klasikoan *non multa sed multum* hura ahaztuxerik daukagu eta badi-rudi gaurko politiko eta herri-arduralari batzuk erosoago mugitzen direla kopuru handien makrokosmoan kalitatea eta norbanakoaren mikrokosmo zehatzean baino. Gehiago esango nuke, ale hartan bertan Goi-Zikloko Erreformako Koordinataldeak idatziriko "Hizkuntzen kontaktoaz eskolan" artikuluan iradokitzen ziren bide eta helburuak ez dut uste inork aintzakotzat hartu dituenik ere, ez maila teorikoan eta ez praktikoan.

Koordinataldearen helburua hizkuntzen arteko kontaktoaz baliatzea zen eta horretarako ikasleari hizkuntza bakoitzean izendatzen zaion maila zehaztea eskatzen zen, bakoitzean lortu nahi den gaitasuna finkatuz, izan ere errealtate sozio-linguistiko guztiz desberdinetan murgildurik daudenei (Zaldibi/Elgoibar/Bilbo) ez baitago helburu berak ez edukitan eta ez trebetasunetan ezartzerik.

Taldeak zioen, ikasleek berezian hartzen zutela hizkuntza bakoitzaren (euskara, gaztelania, ingelesa) ikaspena eta hiru hizkuntzen arteko ukipen-eremua aberasgarria izan zitekeela lan-markoa zehaztu eta finkatuz gero.

Lan-markoa definitzen zuten helburuak bost puntutan biltzen zituzten:

— *Hizkuntza batetik besterako aldaketa-mekanismoa sendotu, elebitasun orekatu batera iristeko ahaleginak eginez.*

— *Ikastetxe-mailan egitarau komunikarriago bat antolatu hirugarren hizkuntzak ikasgelatik kanpora ere presentzia izan dezan, horrela hiruen erabilerarako aukera egokiak sortuz.*

— *Hizkuntza batetik bestera aldatzeak duen zailtasunaz jabebarazi ikaslea eta bakoitza bere prozesua onartzera eramanez.*

— *Hizkuntza bakoitzaren identitatea ezagutzea lortu. Hizkuntza bakoitzaren egintza-eremuak bereiztea lortu, egituraren eta esanahiaren mailetan, bakoitzaren mugez jabetuz.*

3. *SENEZ*, 2-3 zkia, 3 urtea, Donostia, 1986. "Itzulpena eta hizkuntz irakaskuntza" izenburu orokorraren pean, J. R. Ladmiral, Henri Besse, X. Mendiguren, Goi-zikloko Erreformako Koordinataldea, J. L. Agotek sinaturiko bost artikulua da toz aipaturiko gaiaz.

4. Goi-zikloko Erreformako Koordinataldea, "Hizkuntzen kontaktoaz eskolan" in: *SENEZ*, 2-3 zkia, 3 urtea, 1986, Donostia, 63-76 orr.

— *Mezuaren deskodatzeta eta birkodatzean erraztasuna lortu baliokidetzeta-irizpidea egoki erabiliz, eta aukera desberdinei buruz arrazoiak emanaz.*

Programa bikain baterako gai ziren helburu horiek, guk dakigula ez dira modu esanguratsuan inon aintzakotzat hartu, zeren eta ikastetxeetan glotodidaktika-sail bat izatea eta euskara, gaztelania eta ingeleseko irakasleak koordinatzea eskatuko bailuke horrek, ondoren hizkuntza bakoitzari dagokion kultur eta zibilizazio-edukiak ere sistematikoki hautatu eta egitarautzeko.

Non gabiltzan ikusirik, bakarren batek baliteke ironia-punttaren batekin harako “*primum vivere*” hura gogoraraztea, horrelako planteamentuak utopia hutsa direlakoan, baina orain arte egin den plangintzaren emaitzak zorrotzasunez ebaluatutakoan eta ez “euskalduntze lauso” baten aldera jasotako kopuru soilen gaindegitik, ziur nago bat baino gehiago hasiko dela haur askoren eskola-porrota, mintzatuzko eta idatzizko adierazmen deitoragarria eta, oro har, gure mintzatuzko eta idatzizko komunikabideetan, eta are Unibertsitateko ikasle eta irakasleengan nabari den hizkuntz defizita hobetzeko orduak jo duela aitortzean, bata ez zela bestearen etsai, baizik eta bata egiten zen bitartean bestea ere egitea zela bi helburuak ongi lortzeko modu bakarra.

### Hizkuntz ugaritasuna eta Interlinguistika

Hizkuntzaniztasunaren, hizkuntza mistoen, hizkuntza hibridoaren linguistika, itzulpenaren eta itzulpen-konparaketaren linguistika, “hizkuntzek gure baitan duten elkarriketaren” linguistika, oraindik izen hila dabilen linguistika konparatibo berri horri “interlinguistika” (*Interlinguistik*) deitzea proposatzen du M. Wandruszka<sup>5</sup>, A. Debrunnerrek 1948an, Parisen ospatutako Hizkuntzalarien VI Nazioarteko Kongresuan iradoki zuenaren ildotik.

Interlinguistikaren objektua gizakiaren hizkuntzaniztasuna izango litzateke eta galdera mordo bati erantzun beharko lioke: zer da komuna giza hizkuntza guztietan? Hizkuntza guztietan ote daude bokalak eta kontsonanteak? Zeinu linguistikoen forma fonikoa beti gertatzen al da? Zer elementu material eta formal aurkitzen dira hizkuntza bakoitzaren egitura fonikoan? Eta abar. Hizkuntz unibertsal izendapenak adierazten du hizkuntza guztien baitako errealitate komuna. Eta komuna den horretatik abiatuz neur dezakegu, halaber, lurberan hitz egiten diren hizkuntzen aniztasuna zeinen handia den. Zer premia-motari erantzuten dio hizkuntza bakoitzaren eta desberdinen aldagai, berezitasun eta ezaugarri-kopuru ugari horrek? Giza mundua anitza da. Natura eta teknika, kulturak eta erlijioak, herriak, gizarteak, estatuak anitzak eta askotari-koak dira. Baina zer neurritaraino hizkuntz egitura eta formen aniztasuna dagokio giza taldeen bizi eta pentsatzeko aniztasunari? Hizkuntz tresneriako zer diferentzia esplikatu eta justifikatu daiteke kosmologi esperientzia diferenteen adierazpidetzat, ikuspuntu diferente gisa? Zer forma eta egitura, dira ezinbestez diferenteak hizkuntza jakin batean beste hizkuntza batekoekin alderatuta? Zer da hizkuntzen aniztasun kontraesankorren baitan, beharizan izpiritual eta zer halabehar historiko?

Galdera-sorta horri erantzun nahiaren aurrez aurre itzulpena ageri zaigu, eta gezurra badiurdi ere gaur egun linguistikaren objektu bihurtu da, aurreko hamarkadetan zenbait hizkuntzalarik erakutsi zioten mesfidantza eta arbuioa gaindituz. “Ez dago linguistikarik itzulpenik gabe” dio Wandruszka eta arrazoi du, zeren giza hizkuntza ikertzeak hizkuntza batak eta besteak

5. Wandruszka, M., *Interlingüística. Esbozo para una nueva ciencia del lenguaje*. Editorial Gredos, 1980, 11 or.

Jatorrizko obra 1971an agertu zen R. Piper & Co. Verlag, München, *Interlinguistik: Umriss einer neuen Sprachwissenschaft* izenburuarekin. Gai honen inguruan idatziriko beste honako artikulua hauek ere interesgarriak dira:

Wandruszka, M. 1971, “Nos langues: structures instrumentales-structures mentales” in: *Méta*, 16, 7-16 orr.

Wandruszka, M. 1973, “Vers une linguistique de la traduction” in: *Cahiers Memationaux du Symbolisme*, 65-85 orr.

erkatzea esan nahi baitu, baina itzulpenaren bitartez erkagarri, konparagarri bihurtu dena bakarrik erka dezakegu.

Itzulpenen hizkuntzarteko azterketak gure hizkuntzak egiazko sormenera irekitzen ditu; analogia eta anomalia, polimorfia eta polisemia, erredundantzia eta eskasia, esplizitazio eta inplikazio, iraungai eta aldagaizko eremu magnetiko gisa aurkezten ditu hizkuntzak. Horrek guztiak erakusten digu ez dagoela beti dena esan behar duen hizkuntzarik eta beti malgutasun eta mugimenduan aurkitzen direla etengabe prozesu historikora moldatuz. Horretan datza hizkuntzen handitasun eta ahulezia, eta horrek bereizten ditu beste hizkuntza zibernetiko itxi eta "perfektuetatik".

Interlinguistikak eskaintzen dituen datuak eta ezaguerak funtsezko balio dira arraza, etnia, erlijio eta iritzi diferenteetako giza taldeak elkarrekin bizitzera beharturik daudeneko mundu honetan, beraz baita Euskal Herrian ere; eta gure hezkuntza-sistemaren baitako balioen artean landu beharrekoak dira haurren lehen urteetatik hasi eta hezkuntza-aroa guztian zehar, jadanik gaur egun baduten eta etorkizun hurbilean oraindik areago izango duten gizarte balioanitz ulertu eta bizi izateko gaitu nahi baldin baditugu. Funtsean sasikoak eta elkarren kide diren "nazionalismo" hipertrofiatua eta "unibertsalismo" bistalaburraren kontra ezin daiteke txerto hoberik aurki norbere identitatea bere muga eta eskasiekin azpimarratzea baino, besteekin gaiza bera egiten den aldi berean, harreman elkarrosagarriak ezarri.

Eusko Ikaskuntzaren gerizapean epe laburrera egin behar den euskal hezkuntza-sistema eta balioen azterketa batek oso kontutan hartu beharko lituzke, nire ustez, hizkuntza eta kultur aniztasunaren azterketa, balioespen, koordinazioaren gainean, nazioartera irekitako kultura baterako oinarriak ezartzea, nork berea duena inoiz ere inorenari kontrajarri gabe, baizik eta nork berak duenaren osagarri eta aberasgarri gisa. Defentsa eta protekzionismoko egoerak, epe laburrera emankorrak diruditen arren, nola ekonomian hala kulturaren, epe luzera zurruntasun, pobrezia eta itolarrira gidatzen dute.

Halere, zerbait esan beharra ere badago Unamunok hainbesteko higuina zion "papanatismoaz" ere: sasi-unibertsalismoz mozturroturiko diskurtso muga-ezabatzaile, sasi-etizista xalo edo ez hain xaloen aurrean, ere aitortu beharra dago nork bere buruari duintasuna eta begirunea izatek hasten dela inorentzako duintasun eta begirunearen neurria, eta ezin bestekoa dela nork bere burua (hizkuntza, kultura, historia...) ongi ezagutzea, arrotza edo atzerritarra denarekiko elkarrizketan solaskide nortasundun izateko, eta ez mamu espektral edo txotxongilo. Ez da pensatu behar kanpotik eta bestearengandik guztia hoberena denik, ezta ona ere, eta horregatik zentzu kritikoa, aspaldian behealdian dagoen hori, ere parez pare landu beharko da.

"Arrotzaren aterpe edo ostatu" izan nahi duenari ongi dagokio usoaren otzantasunaren jabe izatea, baina sugearen zuhurtzia baztertu gabe.

## Itzulpena jakintzagai berri

Jadanik behin baino gehiagotan aipatu dudan M. Wandruszka hizkuntzalariaren eta hil berria den A. Berman traduktologo frantsesaren ildotik<sup>6</sup>, gure artean gero eta ugariago diren filologo, hizkuntzalari, literaturari eta abarri eskaini nahi nieke ondorengo hausnarketak.

6. Berman, A. *L'Épreuve de l'Étranger. Culture et traduction dans l'Allemagne romantique*, Gallimard, 1984, Paris. Traduktologo frantsesak Centre National des Lettres-en laguntzarekin argitaratu zuen doktorego-tesi honetan, Lutero-rengandik hasi eta Herder, Goethe, Schlegel, Novalis, Humboldt, Schleiermacher eta Hölderlin-en itzulpenari buruzko gogoeten berri ematen du.

Itzulpengintza, esperientzia eta jarduera gisa, hizkuntza, literatua, kultura, ukipen-mugimendu eta abarri buruzko jakituria bat bere baitan daraman zerbait da, eta zentzu horretan jakite-subjektutzat, jakite-iturburutzat hartu beharra dago.

Bestalde, frantses traduktologoak iradokitzen duenez, "jakintza" bihurtu beharko luke zentzu estuan, forma zehaztu, ia instituzional eta ezarria hartuz, ikergerri eta irakasgerri bihurtuz. Hori lortu nahi da "traduktologia" bezalako izendapenaren azpian, baina horrek ez du esan nahi, derrigor, itzulpenak jakintzagai berezi baten objektu bihurtu behar duenik, "eremu" edo "alor" isolatu edo berezi batekin, Izan ere, traduktologiak jakite-alor gisa, oso hurbil legoke oraindik orain puri-purian egon diren zenbait diskurtsotatik: Michel Foucault baten "arkeologia", Jacques Derridaren "gramatologia", Beda Alemannen "poetologia" bezalakoetatik. Traduktologia ez dator linguistika puru edo aplikatu, literatura konparatu, poetika, estilistika, glotodidaktika eta abarri lekurik kentzera, nahiz eta jakintzagai horiek guztiek nolabait itzulpena erreibindikatzen duten. Traduktologia jakintzagaiartekoa da *par excellence*, hain zuzen ere jakintzagai desberdinen artean kokatzen delako, eta sarritan bata bestetik aski urrunduak daudenen artean gainera.

Goethek irakatsi digunez, itzulpena hizkuntzarte, kulturarte eta literaturarteko komunikazioaren kasu berezi bat izanik, itzulpena gisa horretako prozesu ooren eredu ere bada.

Bestalde, Giordano Brunok, agian modu hiperboliko samarrez adierazten zuena "*Itzulpenetik dator zientzia oro*" esamoldeak aditzera ematen du itzulpenak literaturan ezezik, filosofian edo giza zientzietan, transmisio hutsezkoa ez den zeregin bat du, hau da literatura, filosofia edo zientzia eratzen dueneko. Horregatik dio A. Bermanek, baldin eta itzulpena ez balego estalirik, ezkutatutik literatura eta ezagutzaren faktore eratzaila (eta ondorioz historiko) gisa, aspaldidanik existituko zatekeen "traduktologia" bezalako zerbait, "kritika" existitzen den arrazoi berberaz.

J. L. Borgesek "*ningún problema tan consustancial con las letras y con su modesto misterio como el que propone una traducción*"<sup>7</sup> harako hark poetika modernoak obraren (lehen idazkera) eta itzulpenaren (bigarren idazkera) artean dagoen harreman-sare aberatsa agerian jarri digu eta hiper-, inter-, para- eta metatestualitateez gainera itzulpenaren transtestualitatea ere aintzakotzat hartu beharrekoa dela.

Horrela, literatura konparatuak beharrezko du "traduktologia" osagarri partzialki integragarri gisa, zeren ezinezkoa baita nazioarte-mailako eragina izatea itzulpen esplizitu edo inpliziturik gabe.

Filosofiar dagokionez ere, itzulpenak zeregin funtsezkoa du, historian zehar hainbat pentsalarik erakutsi digutenez: diskurtso filosofikoa artikulatzen duten *Grundwörter* (oinarri-hitz, hitz gako) nagusiak aldioro interpretazioa eta neologia, mailegua eta birformulazioa parez pare bizi izan edo aldika txandakatu dira. Izan ere, historikoki filosofia grekoengandik erromatarrengana, Erdi Arotik Errenazimendura, Aro Modernora eta garaikidera itzulpen-sail baten bitartez garatu da eta esan beharrik ez dago, itzulpengintza hori "edukien transfert" soila baino zerbait gehiago izan dela. XX mendean itzulpena horizonte filosofikoan auzi esplizitu eta hiltzikotza gisa sartu da Wittgenstein, Karl Popper, A. Quine, Heidegger, Gadamer, Michel Serres eta batez ere Jacques Derrida bezalako pentsalariekin<sup>8</sup>.

7. Borges, J. L., "Las versiones homéricas", in: *After Babel: Aspects of Language and Translation*, OUP, 1975, Londres, p. 4.

8. Berman, A. loc. cit. 296 or.



Gauza bera esan liteke, psikoanalisi, orientalismoa eta abarren eta itzulpenaren arteko harremanez ere: lehenak itzulpena aurkitu du bere burua berritzatzeko arazoetako bat bezala, eta bigarrenak aitortu du XIX mendean egindako zenbait itzulpen “etnozentririk” deszentramendu-arazoak sortu izan dituela eta traduktologia lagungarri izan daitekeela itzulpen ez-etnozentriko baten teoria landuz, hots, teoria deskribatzaile eta arautzaile bat mamituz.

## Konklusio gisa

Artikulu labur honetan egiten ditudan gogoetek hausnarketarako dei izan nahi lukete hezkuntza- eta hizkuntz arduradun, hizkuntz eta literatur irakasle, filologo, hizkuntzalarientzat, eta oro har, aipaturiko jakintzagaiekiko zuzenean edo zeharka zerikusia duten agintari akademiko eta kultur arduradun guztientzat. Lehen esan bezala, gurea bezalako herri baten hezkuntza, hizkuntz eta kultur plangintzan oso leku behinen eta garrantzizkoa izan behar dute hizkuntzen irakaskuntza eta koordinazioak, bakoitzari dagokion kulturenekin batera. Haurren lehen urteetatik hasi eta gorantz doan plangintza koordinatua izan behar du, eta literatura, estilistika, lengoia edo mintzaira, historia, filologia, linguistika kontrastiboa, lexikologia, lexikografia...eta abarretan oso presente egon behar du “traduktologia” eta “interlinguistika” deitzen ditugun horien oinarriko ezaguerak. Irakaskuntzako urteetan zehar eduki teorikoak ez ezik, praktika sarriak burutu behar dira hizkuntza eta kultura desberdinetako testu eta mezuak aldatzen, bai ahoz eta bai idatziz, eta ezinbestekoa da euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa eta abar bezalako hizkuntzetan itzulpenak, hots, beste hizkuntza eta kulturetatiko eraginak izan duen erlalmena agerian jartzea, sarritan solipsismo izateraino sustatzen den historiaren kontrako kultur autarkia hori gainditu, umiltasunezko egintzak burutu eta solidaritate-zentzu errealista bat garatzeko.

Bestalde, arrotza, atzerritarra, “gutaz bestelakoa” dena mehatxu edo eraso bezala ikusten ari garen Europa honetan eta erlijio-fundamentalismoak errotzen eta nagusitzen ari diren mundu zabalean ez dago txerto hoberik jadanik aski ezagunak diren xenofobiaren mamuak arautu eta uxatzeko kultur eta hizkuntz hibridazioaren errealtatea agerian jarri eta balioestea baino. Alderantzizko bideari heldu eta jarrera numantiarrean ateak itxi, kultur autarkia aldarrikatu eta mugez haraindi datorkigunari abegi egin ordez beldurrez muzinka eta uzkur aritzea, ostrukarena egitea eta gainera datorkigun uholdean nabigatzeko ontziak prestatu ordez hilobi bihurtuko zaizkigun presa suntsikor bezain barregarriak eraiki nahi izatea.